

EUSKALZALEEN-BILZARRA

1909^{ko} BIL-ALDIA

Agorrillaren 26^{ean}, goizeko hamar orenetarik eguerdirat artean, *Euskalzaleen-Bilzarrak* egin du urtheko bil-aldia *Maulen*, *Hiriko Etchean*, *Heugas* jaun haurzapezak onhetsia zioen barnedegi ederrean, buru lehen zuelarik *don Julio Urquijo-koa*.

Buru lehenak bilkhurako laguneri egin diote ongi-ethorria, esku-zarta handiz aditu diren hitz amutsuenak erranez.

Adiarazi ere du, bilkhuran ezin aurkhitzeaz nahigabe erakutsi dutenak direla, Jaun eta Jaun : Bernard Ahetz-Etcheber, Frederiko Baraibar-koa, Arturo Champion, Michel Delgue-Arana, Renaud Elissagaray-ko, deputatua, Carmelo Echegarai-koa, Joanes Hatan erretor ondoa, Basilio Iraizoz erretora, Georges Lacombe, Jes.-Alex. Lacoste, F. Larrieu doctor mirikua, Justin Berterreche-Xendikota-ko, erretor buruzagia, Ch. Minjonnet kontseilari jenerala, Pradet-Balade, deputatua, eta Marcel Vicendoritz.

Izendatu ditu ere, Bilzarrerat onhetsiak izatea galdetu duten hemezortzi lagun : Jaun eta Jaun, Xavier Palassie, Eugène Béguerie, Joseph Ahetz-Etcheber, J.-P. Lanusse, Amarant Souhy-koa, Joanes Souhy-koa, Duhalde Ustariztarra, J.-B. Bisquey Arraing-koa, Michel Gombault, erretora, Joanes Ibarregaray, Andres Armagnague, erretora, Goyheneixpe, J.-B. Althabe, erretor ondoa, Auguste Berterreche-Mendikota-ko, erretora, Am. Larre Irisarrikoa, A. Veisse, Justin Berterreche-Mendikota-ko, erretor-nausia, eta J.-P. Duque, erretora.

Ordutik, jaun aphez *Landerreche* Bilzarreko iskribariak irakurtzen ditu eta onhetsiak dire jazko bilkhurari zohazkon chehetasunak.

Urtheko har-emanak, bere aldian, agertzen ditu Nere Jaun *Justin Heugas* har-emanaren buruak eta erakusten du eskuetan gelditzen direla 327 libera. Bere chehetasunak onhetsiak zaizko.

Bilkhura hunen Maule, Zuberoko hiri nausian egiteak ekhart-

zen du, Buru lehenak galde dezan, orai artean aiphu baizik ez zen gauza baten bururatzea. Hura da orhoitzapen onezko marmola-harri batzuen egitea, *Ernaut Oihenart-eko*, aiphamen handiko istorigrafoaren, *Jakes Bela-ko*, Zuberoko *Ohikuntza-ren* argitasunak eta herri-alde berari behatzen zaizkon bertze chehetasunik ere eman dituenaren, bai eta ere *Bela-ko Zaldun*, *Euskaldunen istorio edo kondaira* ezkuthitz utzi duenaren, eta azkenekotz, *Agustin Chaho*, atharratar iskribatzaile, aiphamen hark ere duenaren goresmenetan. Ez-baietan, gauzen chehetasunari dohakonaz ihardokitzen aditurik, Nere Jaun Frederik Saint-Jayme-koa, doctor-miriku Juanchuto, doctor-miriku Constantin, Clément Andurain-eko Maytie-koa eta Joanes Jurgain-ekoa, chedatu da guzien nahitik, bi harri-marmola, behar diren urhe-hitzekin, ezarriak izanen direla Maulen, Hiriko-Etchean, bata *Ernaut Oihenart-ekoaren* eta bertzea bi *Bela-tarren*, bai eta hirugarren bat, Atharratzeko Hiriko-Etchean, *Agustin Chahoren* goresmenetan.

Nere Jaun Clément Aidurain-ekoak eta haren zembeit lagunek bere gain hartzen dituzte Mauleko gastuak. Nere Jaun Constantin Atharratar doctor-mirikuak bertzela galdetzen du, gure Biltzarrak eta Atharratzeko Hiriak gastuak egin detzaten erdizka. Onhetsia zaio.

Hortarik harat, Landerreche jaun aphezak eta Nere Jaun Joanes Jurgain-ekoak aiphu dute, Donaphaleu-ko Egunkarian argitaratu den, eta bilkhurari irakurtzen zaioen eraskuntza molde hoberenetako bat, bilzarrari galdetzen dioena hertsatuki, ez daitezen ethorkisunean galtzerat, utz, orai artean asko bertze bezain, etche zaharretako, eliza-dorre batzutako eta hilherrietako hizkuntza ohartgarriak. Galde hori den hobekiena hartua da, eta galdezen zaiote Bilzar-Laguneri, zeinek bere ingurumeneko hizkuntza zaharrak bil deixaten, buru lehenari helarazteko, eta argitaratuak izateko, Nere Jaun Urquijo-koaren Hilabetekarian.

Aiphu da gero, tokika egin detzakegun hilabeletik hilabeterako bilkhura berezietz. Aithor da balios laitezkelak, eta egin ere badaitezkelak, zaharrenak buru, hertsamendurik gabe. — Irakurtzen da gero, *Nere Jaun Barran* goretsiaren aintzinachagoko, guthun bat. Zioen hartan, ez othe laiteken eginkidin, jakintsun-itxura handi hetarik gabeko Hilabetekari bat, biltzar-lagunek zorionez irakur lezaketen bezalakoa. Ihardesten zaio, nahiz baliosa, ahalik gabez gauza hori gerorat utzi behartzen direnetarik dugula.

Hortarik landan, iskribari Landerreche jaun aphezak irakurtzen du, *Aita Babilio Joannateguy* beneditanoaren-ganikako eskutitz bat,

dioena, Euskalzaleek zer egiteko dugun, Euskararen alde, gutartean baino ere hobeki España-aldean hasia den urhaspide miresgarriaren berdintzeko: zaiolarik guziaren buru, hoin urhats onez lagundua den Euskal-mintzairarentzat, egun ederrik badagoela. — Irakurtzen du gero jaun aphez berak, bere eskutikako eraskuntza bat, eta haren bidez erakusten, baldinetariak, egungo egunetan bezala, *Euskal-mintzaira*, Erdal-mintzairekin nahastaterat uzten badugu, arte laburrez behin beregisakotzen eta gero suntsitzen ikustekoak gaudezela.

Azkenekotz, Bilzar-buruzagiak berritzen dire, eta dagoen urtheokotzat guzien nahitik izendatzen, Jaun eta Jaun:

Joanes Jaurgain-ekoa, buru lehen;

Georges Lacombe eta Jose Eizaguirre, buru bigarren;

Salaberry (Iholdikoa), Chimitz, Dihigo eta Heugas, hoikien aldean jartzaile;

Landerreche apheza iskribari lehen;

Jean Souhy-koa iskribari lagun;

Amarant Souhy-koa, har-emanaren buru.

Bilzar-buruzagi ohieri esker-on handienak ematen zaizkote, eta hitzhartzen da dagoen urtheoko bilkhuraren egiten Donjuane Lohtizunen, ordu onez jakin-araziko den egunean.

Guziaren buru, eguerdi gain-gaingan Bilzar-Lagunak jartzen dire Saubidet-eneko ostalerian, 50 lagunentzat heldatua den mahain eder eta gozo batean. Harat sartzen dire ahal izatu duten ordutik, Jaun eta Jaun: Heugas, hauzapeza, Adrien Souhy-ko, kontseilari jenerala eta Eugène Sallaberry, notaria. Diote nahigabe zaiotela, kampo herri batetako ehortzeta batengatik, bilkhuran ezin aurkhitu izatxa, eta jaun Hauzapezak dio, Bilzarrari Hiriko-Etcheanongi-ethorria berak ezin egin ahal izatu dioenaz, nahigabe handi duela.

Azkenekotz, Champañak eskurat hartzen direlarik, *Nere Jaun Juanchuto*, Camboan eta non-nahi maithagarri denak, mintza-aldi choragarri bat euskaraz egiten du, eta esku-zarta khartsuenez saristatzen du Bilkhurak.

Handik harat, hitzak ez ziren aski, bihotzeko kharraren erakusteko. Kantatu dire, ez maizenik bakharka, *Guernikako arbola*, *Uso ehuria*, *Kaiku esnea*, eta zer ez?

Bizi bedi Euskara! Bizi beitez Euskaldunak!